

Euskal idazleek solasaldiak eskainiko dituzte Legazpin bihartik aurrera

Alberto Ladron, Imanol Azkue eta Anjel Lertxundik hitz egingo dute herritarrekin

Legazpi. Legazpiko Kultura sailak eta liburutegiak egitarau oparoa antolatu dute apirillean liburuaren inguruko bi egun garran-tzitsu ospatzen direla eta. Hilaren 2an haur eta gazte liburuaren nazioarteko eguna izan zen eta 29an liburuarena eta jabego intelektualarena izango da.

Programa martxoaren erdialdean hasi zen eta hilaren 27an bukatuko da. Orain arte, erakusketa, bisita gidatuak eta an-tzerki eta ipuin kontaketa saioak izan dira. Besteak beste, haurrek Animaliek hizketan zekiten garaian erakusketaz gozatzeko aukera izan dute eta, helduek, Kandido Uranga aktorearen Henry Bengoa inventarium antzezlanaz.

Datorren astean, berriz, euskal idazleekin solasaldiak izango dira. Bihar, Alberto Ladron izango da kultur etxean. 18.00etatik aurrera literaturaz hitz egingo du bertaratzen diren herritarrekin. Asteartean Imanol Azkuek DBHko ikasleekin hitz egingo du eta, ostegunean, Ladronek Batxilergokoekin. Egun berean, 18.00etan, Anjel Lertxundirekin solasaldi irekia izango da kultur etxean. Ekitaldi hau gazteleraz izango da.

Gainera, bihartik hilaren 27ra bitartean, erretiratutako liburuak oparituko dira liburutegian. Gehienak bazkideek egindako emariak dira eta gutxi batzuk errepikatuta iritsi direnak. Liburu hauek eskuratzeko, beharrezkoa da bazkide izatea.

Liburuen eta literaturaren inguruko azken ekitaldiak hemendik bi astera izango dira. Hilaren 23an Domingo Agirre ikastetxeko bost urteko haurrek liburutegia bisitatuko dute. Hurrengo egunean, Haztegi ikastolakoak izango dira bertara joango direnak. >a.z.